

PREKARIETATEARI AURRE EGINEZ

1. Sarrera

Aintzat hartu beharreko lehen kontua, sistema kapitalistaren patriarkal izaera bera da. Neoliberalismoa kapitalismoaren ondasunen metaketa hobetzeko behar diren neurrien multzoa izanik, neoliberalismoarentzako neurri hauen artean garrantzitsuenak edo behar-beharrezkoak sexuen araberrako erabateko lan banaketa eta eremu pribatua bera direla diogu.

Beraz, gaur egungo sistema kapitalista aztertzeke unean, beronen patriarka-izaera, sexuen araberrako lan banaketa eta ekonomiaren baitan kokatzen den eremu pribatuaren eta honen eraginez sortzen den ekonomi ezkutua ezinbestez kontutan hartu beharreke elementuak dira.

Argi dugu, kapitalismoaren egungo adierazpen berak, hots, neoliberalismoak problematika sozio-ekonomikoaren gogortzea ekarri duela eta aldi berean, gizon eta emakumeon arteko ezberdintasunak areagotzea. Honez gain, lan banaketa sexuen arabera egiteko joerak emakumeon bizi-baldintzetan eragin zuzena du.

Ongizatearen estatu eredu deritzotena, jendarte eredu prekarioetan bilakatzeko joera martxan da jada, eta neoliberalismoz kutsaturiko politikek, jendarteak bizi eredu aske eta duina garatzeko beharrezkoak dituen baldintza materialak eskuratzea zailtzen dituzte. Guzti honek, ondorengo lerroetan aztertuko dugun moduan, esanahi espezifiko du emakumearengan.

Prekarietateak, bere adierazpen ezberdinen bidez pertsonen bizi eredu zuzentzen du. Halaber, prekarietateak sorturiko zapalkuntza harreman guztien ardatza da: kapitala eta lanaren arteko harremanak, natura eta garapenaren arteko harremana, herrien arteko harremanak, etorkin pertsonetik harremanak, gizon-emakumeon arteko harremana... Hain zuzen honi, gure arreta eskaini nahi diogu. Hots, egungo sistema ekonomikoaren ondorioz emakumeon zapalkuntzaren irauaraztea.

2. Marko teorikoa

Emakumea eta prekarietatea, errealitatea gure azalean

Prekarietatea, jendarte esplotatu, zapaldu eta zatitzeko sistema kapitalistaren bitarteko lez kokatu eta ulertzen badugu, argi geratzen da eskubideen murrizketa eragiten duela. Beraz agerikoa da, eskubideen murrizketa, lan baldintzen okertzea eta lan merkatuaren berregituratzea eskutik loturik dauden elementuak direla eta honek emakumeon errealitatean ondorio zehatzak ditu.

Prekarietateari aurre eginez!!

Genero ezberdintasunak ulertzeko modua, sistema patriarka-kapitalistak sorturiko arazo sozialak eta honen aurrean erantzuteko gaitasuna eta erantzun era ez da bakarra.

Emakumea izatea ez da elementu nahikoa izaten, arazo berdinak intentsitate berdinarekin bizitzeko eta ulertzeko.

Konponbidea edo irtenbidea bultzatu nahi badugu, eraginkorrak izan daitezkeen lan ildoak erabakitzerakoan, ezin dugu erdibidea aukeratu. Emakumeon beharrak eta errealitate ezberdinak ezagutzea eta aztertzea funtsezkoa iruditzen zaigu.

Emakumeon egiturazko zapalkuntzaren aurrean, erantzun orokorrak eta integralaz gain, erantzun espezifikokoak ere beharrezkoak dira. Horrexegatik, pertsona guztiak bilduko dituen ideei nagusien aldeko diskurtsoa maiz zabaltzen bada ere, ezberdintasunek duten garrantzia aztertzea eta, besteak beste, belaunaldi bakoitzaren izendatzaile komunak zeintzuk diren identifikatzea premiazkoa zaigu.

Azken 80 urteetan historiak, ekonomiak, hezkuntzak eta sozializazio prozesuak Euskal Herriko emakumeengan modu erabakigarri batetan eragin dute, eta eragin hau belaunaldi bakoitzeko ezberdina izan da. Aukerekiko, arazoekiko eta beharrekiko ezberdintasunak sortuz, feminismoa bera ulertzeko eta kokatzeko moduan ere ezberdintasunak bultzatuz.

Jendarteko ezberdintasunak eta prekarietatea ulertzeko modua

Ekarpen honen helburua ez da ulermen prozesuan eragiten duten faktoreen garapen zehatza egitea (psikologikoak eta soziologikoak direnak aldi berean), garrantzitsua da ordea eskuartze eraginkorra lortze aldera hauek kontutan hartzeak duen garrantzia azpimarratzea. Nola lor liteke ezberdintasuna sentitu ere egiten ez duenak parekidetasunaren aldeko borrokaren garrantziaz jabetzea?

Gertaerak ulertzeko modu desberdinek, egunerokotasunean gure egiten ditugun jarrera horietan barneratuta ditugun traba sexisten existentzia hautematea ahalbideratzen digu. Traba sexista hauek, gure estrategia pertsonal eta proiektuen diseinuan eragiten dute, aldaketa geldiaraziz.

Generoari lotuta doan ezberdintasun soziala eta prekarietatea existitzen dira, non emakumea diskriminatua den gizonaren aurrean. Gaur egun ezberdintasun eta prekarietate egoera hau mantentzea ulergaitza bada ere, esan beharra dago mantentzen baino handiagoz ari dela bizitzaren aspektu gehienetan.

Patriarka-sistema behin eta berriz ugaltzeko duen gaitasuna eteteko, ez da nahikoa patriarka-sistema bera, edo eta genero sistema soziala, sexuen araberako lan banaketa batetan,

Prekarietateari aurre eginez!!

generoaren araberako botere banaketa batetan eta botere banaketa baten araberako sortze edo osatze zientifiko batetan (eta beraz baita genero mailakoa era) oinarritzen dela aitortzea. Jendartean aldaketa nabarmenak eman diren arren, guzti honen batuketa da funtsean, belaunalditik belaunaldira, sistemari bere burua bere barne moldean behin eta berriz ugaltu ahal izatea ahalbideratzen diotenak.

Behartzailea den eta ezarria izan zaigun genero sistema ez dela horren begi bistakoa, EZ BAITA BERE EXISTENTZIAREN INGURUKO KONTZIENTZIA HEDATURIK EXISTITZEN, are gehiago, gaur egungo belaunaldietan kontzientzia falta hori nabarmena da.

Psikologian eta soziologian, jarrera ekintzen eta lehentasunen araberako sistema batek baldintzatzen duela onartzen da, non sistema behartzailea eta errepresiboa den eta disimulatua den araudi batek kontrolatzen duen. Araudi honek, lorgarriak iruditzen ez zaizkigun edo eta zigorgarriak iruditzen zaizkigun pentsamenduak eta nahiak modu inkontziente batetan alde batera uztera bultzatzen gaitu.

Gutziz inkontzientea eta automatikoa den jarreraren eraketa honek (sakoneko egitura mental moduan ulertuta), sistema sozialetan ematen diren elementu behartzaileak eta errepresiboak behar den moduan sentituak izatea eta baloratuak ez izatea ahalbideratzen du. Genero bietako pertsonak, salbuespen gutxi batzuk izan ezik, sistema sozialak bultzatzen eta agintzen duen "status-quo" delako horri egokitzen zaizkion aukeraketak egiten dituzte.

Saltzman J-ren arabera, *"Pertsonak ezberdintasun sexual sozialekin koherenteak diren aukeraketak egiten dituzte. Horregatik, sexu bereizkeria, sisteman barnerratuak izan diren elementuetan oinarritzen da hein handi batetan, eta kasu gehienetan ezberdintasuna sentitu ere ez da egiten. Ezberdintasunaren existentziaz kontziente egiten denean, berau pertsonari atxiki zaizkion arrazoiekin edo eta genero bakoitzaren estereotipoen inguruko arrazoiekin azalduko du, arazo pertsonala bihurtuz. Era honetara, ezberdintasunak ez du genero diskriminazio itxura hartzen"*.

Hau da ezberdintasunaren ikusezintasunaren funtsezko arrazoietakoa bat. Genero sistemaren mantentze lanean eta beraz ikusezintasunean, emakumeon artean ere oraindik itxuraz libreki hartutako hautazko jarrera batzuetaz hitz egiten da. Honek azaltzen du bestela guztiz ulergaitza dena, hau da zergatik oraindik ere emakumeok batere laguntzen ez diguten hainbat rol gure egiten jarraitzen dugun: etxeko lanak, zaintza lanak edo eta sustatze aukera gutxien duten lan postuak.

Kristalezko sabaiaz hitz egiten dugunean, onartu beharra dugu ez dugula soilik aukera guztiak itxita izatearen arazo erreala, honi, rol hauek bere egin dituzten emakumeen eskaera ezak, sortzen duen itxiera honen frogaezintasuna ere gehitu behar zaio.

Horrela, emakumeak jendarte mailan femenino bezala definituak diren zereginen hautaketa egiten duenean (talde-kontzientzia ezan grabatuak diren ezaugarri eta estereotipoen bidez), femeninotasunaren inguruko kontzeptu "pertsonal" bat adierazten duela uste du, bere izaeraren berrespen bat egiten ari dela uste du. Bere burua gauzatzeko "bere izaera" hobeto garatzen lagunduko dion aukeraketa bat egingo du, aldi berean "emakume bezala garatzea" ere ahalbideratuko diona.

Rol ezberdintasun hauek dira, non sexuen arabera lan banaketa eta botere ezberdintasuna elkar elikatzen diren, benetako ezberdintasunaren ikusezintasuna eragiten dutenak.

Badago aintzat hartu beharreko beste kontu bat, normalean, prekarietateaz hitz egiten dugunean, emakumeon egoera sozio-ekonomikora mugatzen gara: lan merkatuan duen egoera, lehentasunezko ikasketa eta lanbideak... etab. Aldiz, bada emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna areagotzen duen beste errealitate bat, pertsonen arteko erlazioan, sexu biek bereganatzen jarraitzen duten rola hain zuzen ere.

Emakumeok, familiaratean edo lagunartean ematen diren egoera psikiko-afektiboenganako ardura izatearen rol osoa geureganatzen jarraitzen dugu. Honetaz arrotz sentitzen gara gainera, baina beraz banatzen eta konpartitzen jakitea ezinbestekoa da, baita banatu edo konpartitu ahal izateko aukerak izatea ere, bestelako konpromiso soziopolitiko batzuk hartu nahi baditugu.

Gaur egungo emakumearen zailtasun handiena, "ama alaba lagun" rol horri uko egitea da, lan merkatura eta merkatu soziopolitikora gehitu den eta jasanezina den estres eta antsietate maila gehituz bere errealitateari. Egun hirugarren maila bateko diskriminazioaz ere hitz egin dezakegu beraz: gizona, emakumea eta zama familiarak dituen emakumea.

Ingurune bakoitzean eta adin talde bakoitzean gogoeta bat egiten badugu, oraindik ere emakumeak bere ardurak bere gain hartzeaz aparte, bere inguruneari dagozkionak ere bere egiten jarraitzen duela ikusiko dugu.

Emakumea pixkanaka bizitza sozio-politikora gehitzen joan dela ezin daiteke ukatu, baina benetako parekidetasunaz hitz egin ahal izateko ez da hau, landu behar den bide bakarra. Pobreziak emakume aurpegia izaten jarraitzen du. Euskal Herria bezalako nazio batetan, ongizate jendarte batetan bizi garela ozen esaten den honetan, errealitatea bestelakoa da: bakarrik dauden emakume asko dago Euskal Herrian, zama familiar izugarria duten emakume ugari, ezin dutenak bere seme-alabekiko arreta lan egonkor batekin uztartu... Halaber, emakumeak ez du etxe duin bat izateko aukerarik eta norberaren proiektuak duintasunez garatzeko adina ematen ez duen oinarritzko errenta batekin bizitzea beste erremediorik ez du.

Beraz, patriarka-ideologian oinarritzko aldaketarik ez dela eman baieztatu dezakegu. Ideologia hau, azaleko moldetan aldatu da soilik, kapitalismoaren garapenak eskatzen dituen baldintza berrietara egokitzen joan da genero ezberdintasunekiko ahalik eta esplotazio ekonomiko eraginkorrena aurkitzeko. Errealitate honen azterketak erakusten digu estereotipoei dagokien puntuan apenas izan direla aldaketak, eremu ideologikoan emandako aldaketak oso ahulak direla eta aldaketak batik bat legearen atal batetan eman direla, nahiz eta jendarte mailan, aldaketa zorrotza edo drastikoa izan denaren sentsazioa egon.

3. Prekarietatearen ondorioak emakumeongan

Globalizazioa klasearen zapalkuntza estrukturalen datza eta emakumeongan zuzenki eragiten du. Esaterako, lan eremuan prekarizazioa areagotuz, soldatak murriztuz, prestazio sozialak urrituz eta etxebizitza bat eskuratzea zailduz.

Emakumeok historian zehar beti egin dugu lan, etxean eta etxetik kanpo. Emakumeen ekarpena bai etxeko ekonomia bai herrien ekonomiari errealitate bat izan da, baina ez da inola ere bere neurrian baloratu. Hori da arazoaren funtsa.

Lanaren kontzeptu zabala eta anitza lan merkatuan egiten den jarduerara mugatzen da, hots enplegura, eta honek ondorio baztertzailerak ditu. Lan merkatuan burutzen ez diren jardueri ez zaie balio sozio-ekonomikorik aitortzen eta enplegua ez den lanetan jarduten duten pertsoneri ez zaie langile izaera atxikitzen.

Ereduak aurrera egin dezan -eta ezinbestekoa izanik- balio aitorturik ez duten jarduera hauek emakumeon bizkar gainean utzi dira. Honetan datza lan munduaren egituraketa sexu bereizkeriaren arabera, eta horrela zehazten da emakumeoi bertan jokatzeko inposatu zaigun papera.

Emakumeoi pribatutzat jotzen den lan esparrua egotzi zaigu, hau da, etxeko lanak eta zainketa lanak. Ondorioz, lan munduaren esparru publikoa gizonezkoen eremua izatea, bertan bizi dugun diskriminazioaren abiapuntua da.

Zentzu honetan, emakumeok lan merkatuan sar bagaitezke ere (datuek azaltzen duten bilakaera positiboa) gizonezkoek lehentasuna izaten jarraitzen dute eta sartzeko prozesuak diskriminatua izaten jarraitzen du: lan sektore femeninoetan sartzeko gara non lan baldintzak kaxkarragoak diren eta langileriak aldaketak eragiteko gaitasuna askoz murriztagoa den, eta bestetik, sektore guztietan emakumeak gara lanpostu okerrenak betetzen ditugunak.

Genero zapalkuntzak, zerbitzu sozialen ezaren bidez, emakumeak ordaindua den lana eta ordaindu gabeko lan bezalako funtzioak (zaintzaile, hezitzaile, sendatzaile...) "bateratzera"

Prekariatateari aurre eginez!!

behartzen ditu. Edo eta beste emakumeak era zapalduago batean kontratatzen behartzen ditu.

Ikusten denez patriarka-kapitalismoak emakumeongan eragiten dituen ondorioak ugariak dira. Prekariatatearen ondorioz emakumeon bizi-baldintzen okertzea islatzen duten hiru eremu azpimarratu nahiko genituzke.

Sexu bereizkeria lan eremuan

Langileon eskubideak urratuak izaten ari dira. Lanaldiaren zabalitzea, behin-behinekotasun handiak, soldata eta kontratuen malgutasuna, azpikontratatzeko orokorra, langabezi babesaren murrizketa edota pentsioak eskuratzeko zailtasunak joera honen islak dira.

Euskal lan harremanen ezaugarriarik txarrenetarikoa aldi baterako kontratuen igoera da. Gizonen artean hamarretik hiruk aldi baterako kontratua dute. Emakumeon artean, bikoitza delarik.

Langileon % 4'6 kontraturik gabekoa da, azken hauen %87 emakumeak direlarik.

Kontratuen bi heren baino gehiago "produkzioa dela eta aldi baterako" kontratuak dira. Bataz besteko iraupena bi hilabete baino gutxiagokoa eta lanaldi partzialen oinarria izanik.

Kontratuen prekarizazioaz gain, emakumeon soldaten prekarizazioa dugu. Emakume eta gizonen arteko soldata ezberdintasunak handiak dira eta lan-eskalan zein lan eremuan dauden ezberdintasunak islatzen dute. Lan berbera eginda emakumeok gizonek baino %25 gutxiago kobratzen dugu. Baina lan ezaugarri berdinak izanik soldata bereizkeria ez da soilik ematen. Baita lan ezaugarri ezberdinen ondorioz soldata bereizkeria ematen da ere. Alegia, kontratu mota, sektore hitzarmen mota, esperientzia, enpresaren tamaina, jardueraren sektorea... direla medio balore ezberdina aitortu eta ondorioz soldata bereizkeria ematen da.

Honi gehitu behar zaio aitortu gabeko lana, %90ren kasuetan eremu pribatuan betetzen den lan ikustezina: haurren zaintza, gaixo dauden pertsonen zaintza, etxeko zereginak...

Bestalde, "azpi-langile" eta SMIren soldatapeko langileen igoera nabarmena da. Europar Batasunak deritzon "langile pobreak" ditugu.

Pobreziak emakume aurpegia du

Aberastasun eta ondasunen metaketa pobreziari lotuta doa, zenbat eta aberastasun metaketa handiago, orduan eta pobrezi tasak handiagoak daude.

Euskal Herrian lurralde ezberdintasun eta desberdintasun sozialak areagotzen ari dira; aktiboki diharduten pertsonen artean pobrezia egoerak eta bazterketa sozialak ematen ari dira. Gazteak eta emakumeok egoera honen protagonista nagusiak gara. Laugarren adina delakoan (72 urtetik gorako emakumeak) nabarmenagoa delarik.

Hiri pobrezia eta emakume aurpegia duen pobrezia dugu. Pobrezia egoera batean bizi den gizon batetik bost emakume daude.

Etxebizitza eskuratzea, urraturiko eskubidea

Jendartearen prekarizazioa, eta batez ere emakumeon prekarizazioa, islatzen duen gako bat etxebizitza eskuratzeko ezintasuna da.

Euskal Herrian etxebizitzaren eskaintza eta eskaeraren artean alde handia dago. 40 urtetik beherago belaunaldia merkatu honetatik at dago, etxebizitzen prezioak eta haien errentak ezkontzerik ez baitute.

Eusko Jaurlaritzak plazaraturiko 2006ko Etxebizitzaren beharren informean, genero aldagaiaren beharra aztertzen da lehenengo aldiz. Halaber, etxebizitza beharra duten emakumeon aukera eta gaitasun ekonomikoa 474€/hilabetekoa da; berriz, gizonen gaitasun ekonomikoa 511'6 €/hilabetekoa da. Hori da datu hori!

Bestalde, aipaturiko informean etxebizitza beharrak dituen kolektibo horren baitako emakumeon %45'7 unibertsitate mailako ikasketak ditu, gizonen % 30'2ren aurrean. Halaber, gizonen % 33'1-k aldi baterako kontratua du; ordea, emakumeon % 44'8-k delarik.

4. Emakumeon duintasunerako premisak

Edonolako jendarte ereduren zutabe nagusia sistema ekonomiko eta soziala izanik, emakumeon askatasunari bide emango dion Euskal Herria sortu nahi badugu, sexu bereizkerian oinarritutako erredua errotik aldaraztea da gakoa.

Euskal Herriko Bilgune Feministak emakumeon bizi baldintzak eraldatzeko eta duintasun sozio-ekonomikorako beharrezkoak ditugun duintasunerako oinarriak identifikatu eta zehaztu nahi du.

Horretarako ikuspegi sozio-ekonomiko batetik eginiko emakumeon errealitatearen azterketa eta Euskal Herriko Emakumeon Eskubideen Karta bera oinarri izango ditugu.

Gure arreta, lanarekin eta bizi baldintzekin erlazionatuta dauden eskubideetan zentratu dugu: lanerako eskubidean, diru sarrera minimoak izateko eskubidean, etxebizitza eskubidean eta eskubide sozialetan.

Ez da aldarrikapen zerrenda itxia ezta estatikoa ere. Errealitate ezberdinak eraldatzen ditugun neurrian eta aldarrikapenak bermatzen diren heinean, premisa hauek egokitu, eguneratu eta findu beharko dira.

a) LANERAKO ESKUBIDEA eta emakumeok ekonomiaren subjektuak kontsideratuak izateko eskubidea oinarri izanik, eratortzen diren aldarrikapenak:

1. LANA KONTZEPTUAREN KONTESTUALIZAZIO BERRIA.

Klase eta genero erlazioen artikulazioan sakontzearen beharrak, lana kontzeptua ordaindutako lanetik haratago kokatzen den dimentsio batetan kokatzera eramaten gaitu. Ekonomia merkatuaren produkzio soila baino askozaz ere konplexuagoa dela argi utzi, eta produkzioa eta erreprodukzioa garapen ekonomikoarekin sakonki elkar erlazionaturik dauden bi esfera moduan artikulatzeko sistema dela pentsaraztera bultzatzen gaitu.

Lana kontzeptuaren testuinguru berri honetan, sindikatuetan egiten den lana funtsezkoa da. Sindikalgintzan dagoen matxismoa eta genero interesarekin apurtu beharra dago. Lan estilo berriak, dinamika sindikal berriak bilatu behar dira. Halaber, lan hitzarmenetan definitu eta aldarrikatu beharreko minimoen proposamenek genero ikuspegia txertatua izan dezaten, emakumeon parte hartze aktiboa bermatu behar da, baita lan hitzarmenen negoziazioetan ere. Bestalde, galtzear dagoen klase kontzientziari begira, lan ideologikoa garatzea ezinbestekoa da.

Bukatzeko, aldarrikapen honek izaera estrategikoa du. Ikuspegi feministatik lan kontzeptuaren testuinguru berria ematea lortzen badugu, kontzeptuari dimentsio osoa emanez, hurrengo aldarrikapenak eratorriak izanen dira.

Beraz, aldarrikapen hau *duintasunerako premisa* guztien oinarria eta ardatza da.

2. NAZIO MAILAKO KONTABILITATE KONTU GUZTIETAN ETXEKO LANAK BARNERATZEA.

Gehitze makroekonomikoek barne produktu gordinari begira ekonomiako sektore bakoitzaren balore gehitua zein den zehazteko, etxeko lanen balorea aintzat hartu eta barneratu beharra dute.

3. LAN OROREN ESKUBIDE SOZIALEN AITORTZA ETA SEGURITATE SOZIALAREN ERREGIMEN BEREZIEN DESAGERPENA:

- **ETXEKO LANEN ERREKONOZIMENDUA.**

1999.urteko Venezuela errepublika Bolivarianako konstituzioa, 88. artikulua "...Estatuak etxeko lanak jarduera ekonomiko moduan aitortuko ditu, balore gehitua sortzen duena (kontabilizatzen dena), aberastasuna eta ongizate soziala sortzen duena. Etxeko amek legeek ezarritakoaren arabera gizarte segurantzarako eskubidea dute."

Bestalde, Estatu Espainiarraren legearen arabera etxeko langileen erregimena erregimen espezifikoaren baitan kokatuta dago. Erregimen orokorrean kokatu beharko litzateke.

Azkenik, etxeko lanen errekonozimendu soziala eta ekonomikoa lortu behar da. Hau da, gizon eta emakume ororen erantzukizuna dela barneratu beharra dago. Jendartearen erantzukizuna dela aintzat hartu eta horren arabera gauzatu behar da. Egungo sexuen arabera lan banaketa eta honek suposatzen dituen sexu estereotipoak gaindituz.

- **EKONOMIA MURGILDUAREN ARGITZEA.**

Merkatu ezkutuarien produkzio ekonomia, ez da sektore konkretu baten edo eta koiuntura ekonomiko zehatz baten noizbehinkako gertakaria ezta anekdotikoa ere, kontabilizatzen den ekonomiaren egitura paralelo bat da. Hainbat ekintzek, bai zerbitzuetan (dendetan, taberna-jatetxeetan, jantzigintzan, korrespondentzian eta propagandan), bai industrian (kontserberetan, lerro zuria sektorean osagarri elektriko txikien muntaian, makina-lanabes mikro osagarrien muntaia... etab) ageriko edo legala den ziklotik kanpora burutzen dira hein handi batetan. Emakumeek inolako lan kontraturik gabe eta inolako aseguruirik gabe lan egiten duten pertsonen $\frac{3}{4}$ k ordezkatzeko dituzte, baita gutxien kobratzen dutelarik ere. Ezkutuko ekonomiak ordezkatzeko duen iruzur sozial eta fiskalaz gain, ekintza sindikaletatik urrun dauden emakumeak inolako babesik gabe uzten ditu, eta baita laguntza sozialak jasotzeko eskubiderik gabe ere (baja, erretiroa, langabezia).

Bestalde, ekonomia ezkutuarien barruan, baina ez produkzioaren barruan, prostituzioa kokatu ohi da.

Jakin badakigu, Bilgune Feministan honen inguruko barne eztabaida emateke dagoela.

Baina errealitatea gaur egungoa den bitartean ez ikusiarena ezin dugu egin.

Horregatik prostituzioa ezeztatu edo erregulartasunen arteko eztabaidan sartu gabe, prostituzioan aritzen diren emakumeen bizi-baldintzak eraldatzeko oinarriak identifikatu nahi ditugu.

- **GENERO DISKRIMINATZAILEAK DIREN SEGURITATE SOZIALAREN ERREGIMEN BEREZIEKIN DESAGERPENA, ERREGIMEN OROKOR BATEN ALDE.**

Euskal Herriko nekazaritzan emakumeak duen papera eta generoarekiko nekazaritzako erregimen berezia oso diskriminatzailea dela argi utzi du EHNE sindikatuak. Aurrekoa bezala frankismo garaian egin zen etxeko langileen sistema, garai hartan etxe mailako zerbitzua

eskatzen zuen klase burgesaren onurei begira osatu zen berau eta ez beren kontu lanean ari ziren emakumeak langile gisa aintzat hartzeko, honek erakartzen duen eskubide ezarekin.

4. OSASUNA GENERO PERSPEKTIBA BARNERATUTA DUELARIK.

Genero mailako arriskuak hiru multzo edo ataletan identifikatzen ditugu: jazarpen sexuala, lanaldi bikoitza edota hirukoitza (oro har, emakumeak baikara elkarte sozial, ONG bezalako edota herri mugimenduan murgiltzen garenok) eta bestelako egoera diskriminatzaileak.

Genero perspektibatik gaixotasun profesionalen osatze berri bat egitea eta lanpostu ezberdinetan agertzen diren sustantzia kimiko ezberdinen ezagutza lantzea beharrezkoa da. Honetarako emakumeon osasunean duten eragina aztertzearekin batera sustantzia kimiko ezberdinen ondorioen eta arriskuen ikerketak berriz bideratzea beharrezkoa dugu, bai diseinuan bai ondorioen gauzatzean eta interpretazioan, emakumeen espezifikotasuna gehitzeko.

Ugalketako osasuna eta amatasuna hausnartu behar dira, arriskua suposatzen duten lanpostuen identifikazioa eginez eta lan egoeren egokipenean jardunez, edo eta, ernaltze aurreko garaian (ernaltzea zailtzen duten faktoreen existentzia), haurdunaldi garaian (fetuaren edo umekiaren garapenean eragina duten faktoreen existentzia), erditze osteko garaian eta edoskitze garaian agertzen diren arriskuen ezabapena aztertuz eta bultzatuz.

5. LAN MERKATUAN EMAKUMEON PARTE HARTZEA AUKERA BERDINTASUNEAN:

- **POBREZIAREN MUGATIK BEHERA GERATZEN DEN SOLDATARIK EZ DADILA EGON.**

Pobreziaren Muga ofizialki taxutzea eta PIBren % 37'5ren adina izatea proposatzen dugu.

- **GENEROAGATIK SOLDATA DISKRIMINAZIORIK EZ DADILA EGON.**

Soldatetan diskriminazioak ezabatu eta "lan femeninoa" birbaloratu egin behar da. Horretarako, konbenioak zaindu behar dira, feminizatuak dauden kategori profesionaletan soldata txikiagoen existentzia ekiditeko maskulinizatuagoak daudenen aurrean. Kritikoak gara diskriminazioari izate legala eman dion lanpostuen balorazioa egiteko gaur egungo sistemarekin.

- **JAZARPEN SEXUALAREN ZIGOR TIPIFIKATUA.**

Jazarpen sexuala diziplinazko erregimenean barneratuta eta zehaztuta egon beharko du, jazarpen sexuala izan daitezkeen jarrerak tipifikatuz (txantaje sexuala eta jazarpen-giroa barneratuz) eta duen larritasunaren arabera dagokion zigorraren zehaztapena zehaztuz.

- **AMATASUNA BABESTEKO NEURRIEN SAKONTZEA.**

Seme-alaben lehenengo hiru urteetan, amatasun baja, eszedentzia edo eta lan ordutegiaren murrizpenerako aukerak zabaltzea. Europako hainbat herrialde har ditzakegu adibidetzat, Suedian adibidez; seme-alabak jaiotzearekin batera 18 hilabetetako amatasun baja dute soldataren %80 kobratuz eta hurrengo 18 hilabetetan bai amak zein aitak lan ordutegiaren murrizpena eskatu dezakete soldataren %75 kobratuz eta soldataren %100 kotizatuz.

Halaber, emakumea eta ugalkor adina izateagatik lan postu bat eskuratzeko eragozpenik ez izatea.

- **ASTEKO 35 ORDUKO LANALDIA.**

Eremu pribatuaren eta laboralaren arteko kontziliazioa ez dugu posible ikusten baldin eta gure lanaldia inguruan menpeko diren pertsonak ditugunean berau egokitzeko eskubiderik ez badugu.

Politika neoliberalak ezartzen duenaren aurrean, norberaren elkarbizitza unitatean menpeko diren pertsonen zaintzarako, gizon nahiz emakumeon “*korresponstabilitaterako*” beharrezkoak diren neurriak areagotzea eta lanaldia murriztea funtsezkoa zaigu.

- **LABORALAREKIKO PAREKO DIREN BAIMEN BEREZIAK (ILT ezintasun laboral behin-behinekoa).**

Seme-alaben gaixotasunengatik larrialdi egoerak izaten dira, normalen denbora tarte motzei eragiten die baina izugarriko estresa sorrarazten dute, gainkarga emozional handia suposatzen dute eta lan karga handia ere bai. Horrelako egoeretan, non mediku batek zehazten duen haurrak ohean egon eta zaindua izan behar dutela, gizon nahiz emakumeak ILT-a eskuratzeko eskubidea izan behar du, boluntarioa denean beti ere.

- **MENPEKOAK DIREN PERTSONEN ZAINKETARAKO ETA FAMILIA MAILAKO LARRIALDI EGOERETAN ESZEDENTZIA ORDAINDUA.**

Bizitza familiarraren (dena dela familia eredu) eta laboralaren arteko kontziliazioa ez da beti posible, denboran luzatzen diren larrialdi egoerak daude (tratamendu luzeko gaixotasun larriak, seme alaben tumore bat adibidez, edo eta, garapen patologiko handiko fase batetan dauden eta zainduak izatea behar duten familiarrak...). Egoera hauetan, medikuak beharra zehazten duenean, emakumezko nahiz gizonezko langileak eszedentzia laboral ordaindua izateko eskubidea izan behar du. Eta bere konbenio kolektiboak hobetzen ez badu, ordainsaria bere kategoria profesionaleko oinarritzko soldataren %75 baino gutxiago ez da izango.

- **OHIZKO KONTRATAZIOA LANALDI OSORA IZAN DADILA.**

Zerbitzuen sektorea, batik bat zentro komertzial handietan, denbora partzialeko kontratu mota erabiltzen ari da ohizko kontratu moduan. Legediaren bidez, konbenioen bidez eta sindikatuen kontrolaren bidez, enpresek lanaldi osoko postu bat langile batekin betetzea eta ez birekin bultzatuko da.

- **DENBORA PARTZIALEKO LANALDIA NAHI DUTENENTZAT LAN POLTSA ESPEZIFIKOA EGON DADILA.**

Denbora partzialeko lan bat nahi duten pertsonak hala jasoak izan daitezela lan poltza espezifiko batetan, benetan denbora partzialera egongo diren pertsonak behar dituzten enpresek berau erabili ahal izan dezaten (murriztua izan den lanaldi bat osatzeko, laguntza postuetan...etab).

Denbora partzialeko kotizazioak lanaldi osoko kontratuaren arabekoak izan behar dira.

- **LANGILEEN HAUTAKETETAN GENERO EDO ARRAZA JOERARIK DUEN AUKERAKETA PROBARIK EZ ERABILTZEA.**

Lan merkatura sartzekoan maskulintzat hartzen diren baloreak nagusitzen dira oraindik orain. Ikuspegi psikologiko batetik langileen hautaketa ez da neutroa; aukeraketa testak (antza neutroak omen direnak), bilatzen den langilearen profilaren arabekoak dira.

Joera zehatzak dituztela zientifikoki onartuta dauden test psikoteknikoen ezabapena. Soilik alde zuzenetik mugatutako eta ezagututako ezagupen espezifiko eta jarreraren balorazio objektiboa ahalbideratzen duten probak erabiliko dira.

- **ORDUTEGI LABORALEAN PRESTAKUNTZA JARRAITUA.**

Teknologia berrietan, lanaren antolakuntza berrian...eta abarrean garatutako prestakuntza jarraituak produktibitate handiagotzen du, eta beraz, baita enpresaren irabazia ere. Eta enpresa guztiek horrela dela onartzen badute ere, prestakuntzaren antolaketa egiten baitute; beren langileei prestakuntzaren ordainketa egiten diete, baina dena lan ordutegitik kanpora egin behar izanaren baldintzarekin. Honek emakumea diskriminatzen du gizonaren aurrean, oraindik ere familia zaintzearen ardura osoa emakumearen gain dagoelako. Elementu hau promozio profesionalean emakumearen kontra joan ohi izan da, beharrezkoa egiten delarik lan ordutegiaren barruan prestakuntzarako eskubidea.

Halaber, ingurumen gaiarekin egiten den lez, formazio ikastaroetan (dena dela sektorea) genero parekidetasunaren gaia txertatu beharko dira.

- **SUSTAPEN ERREALA.**

Sustapen profesionalean, diskriminatzaileak ez diren klausula orokorren sortzea lagundu eta bultzatu behar da, non berdintasun printzipioa eta diskriminazio ezaren ezarpena edo aplikazioa barneratuko duten. Barnean kokatzen direlarik, diskriminazio positiboko neurriak. Esaterako, kuoten ezarpena, ardura eta erabaki hartze postuetako emakumeen errepresentazio portzentaia, maila profesional horretako genero garrantziarekin bat ez datorrenean.

b) DIRU SARRERA MINIMOAK IZATEKO ESKUBIDEA. Emakume bakoitzak beharrezkoak dituen prestatzio ekonomiko eta gizarte laguntzak jasotzeko eskubidea oinarri izanik, eratoritzen diren aldarrikapenak:

Pobreziaren Muga ofizialki zehaztea eta PIBren % 37'5ren adina izatea proposatzen dugu. Kalkulu hau urtero eguneratu beharko da eta aurrekontuen dokumentuan jaso beharko du izan (SMI-a eta pentsio minimoak jasoak geratzen diren bezala).

Pobreziaren muga (PM) erreferentzia bat izango da Euskal Herrian, emakume orori duintasun minimo bat ziurtatzeko erreferentzia bat, emakume orori PMren pareko diru sarrera minimoa bermatuz.

1. Ez da Pobreziaren Mugatik behera kokatzen den oinarritzko soldatarik onartzen duen konbeniorik egon behar.
2. Pobreziaren Mugatik behera geratzen den soldata oro (ordukako lana, lan partziala...etab) instituzio publikoek osatuko dute pobreziaren mugara heldu arte.
3. Prestazioak: langabezi saria, erretiro pentsioa, alargun pentsioa, (gizona izandakoarengatik eratorritako eskumena baino, pertsona gisa dagokion eskubidetzat hartzen dugu. Beraz, gizonarekiko menpekotasun ekonomikoa gaindituz, pertsona gisa dagokigun prestazioaz ari gara, "alargun" rola gaindituz) zurztasun eta familia laguntzak pobreziaren mugara heldu arte instituzio publikoek osatuko dute. Indarkeria sexista pairatzen duen emakume orok prestazio hauek jasoko ditu.
4. Oinarritzko errentaren inguruko lege berri baten arabera, ezartzen diren baldintzak betetzen dituen eta diru sarrerarik ez duen emakume orok, pobreziaren mailaren adinako laguntza izango du.
5. Preso dagoen emakume orok pobreziaren mugaren adinako diru laguntza izango du.

c) ETXEBIZITZA ESKUBIDEA oinarri izanik, eratoritzen diren aldarrikapenak:

1. Etxebizitza eskubide bat da, beraz merkatuaren logikatik eta espekulaziotik kanpo geratu behar du.
2. Instituzioen politikak funtsezko norabide aldaketa bat eman behar du, interes sozialen alde bideratu behar da interes pribatu eta espekulazioen alde bideratu beharrean.
3. Etxebizitza gaiari dagokionean, behar errealen arabera, administrazio ezberdinen aurrekontuetan diru-kopurua handiagotzea beharrezkoa da.
4. Diru publikoa alokairu sozialeko etxebizitzaren zuzeneko promozioa egiteko erabili behar da, errekurtsio publikoetatik baliatuz eta helburu pribatuei erantzuten dieten bitartekoak aurreztuz.

5. Alokairu sozialaren aldeko apustu garbia, errenta ordaindu beharrak bestelako behar eta eskubide batzuen asetzea eragotzi ez dezan. Alokairu honen ordainketa errentan dagoenaren diru sarreren kopuruaren arabera mugatu behar da, alokairua 0€ takoa izan daitekeelarik pobrezia mugatik behera kokatzen diren diru sarrerak dituzten pertsonen kasuan.
6. Testuinguru honetan etxebizitza hutsa luxu onartezina da, beraz beharrezkoa da etxebizitza hauei berehalako probetxua ateratzeko kontrol neurriak eratzea (administrazioak baditu honetarako baliabideak) eta baita zigor neurriak zehaztea ere (jabetza kentzeko neurriak proposatu ahal dira, Kataluniako Generalitatek egin berri duen bezala).
7. Lurzoruaren kudeaketak sozialki kontrolatua behar du izan, honen erabilera interes sozialen arabera dela ziurtatzeko eta jarrera espekulatiboak eragozteko (adibidez, modu ohikoan finantziario iturri moduan erabiltzen duten Udaletxeen eskutik).
8. Etxebizitzarako eskubidea urratua dagoen honetan, okupazioaren aukera eta zilegitasuna landu behar da, zigorra kenduz.
9. Aurrezki kutzak, euren izaera soziala kontutan hartuz, ekintza sozialetara zuzentzen duten dirutik zati bat alokairu sozialeko etxebizitzaren parkera bideratu beharko dituzte, eta ez eskubide honek bizi duen babes faltaz baliatuz aberastera. Halaber, etxebizitzaren espekulazioari esker bankuek sustatzen duten politika salatu eta eragotzi behar da.
10. Arazo sozial honi aurre egiteko etxebizitzaren aldeko elkartasun fiskala garatzea hausnartu beharko litzateke. Zenbait ikerketen arabera, urte bakar batean opor fiskalak bertan behera utziko balira etxebizitzaren arazoa konponduko litzatekeelako.

d) ESKUBIDE SOZIALAK oinarri izanik, eratoritzen diren aldarrikapenak:

1. ERANTZUKIZUN PUBLIKOA DUEN ZERBITZU SOZIALEN EUSKAL SISTEMA PUBLIKOA EZARTZEA.

- Zerbitzu sozialen eza eta egungo zerbitzuen defizita salatzea. Baita nagusitzen ari den azpikontraten politika ere.
- Pertsonen duintasunez bizitzeko duten eskubideari erantzungo dion zerbitzu sozialen sarea osatzea.

2. GENERO IKUSPEGIA BARNERATZEN DUTEN AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK BERMATZEA.

Gizon nahiz emakumeek zuzendutako elkarteei begirako dirulaguntza publikoaren banaketari buruzko ikerketa baten arabera, ondorio larriak antzematen dira: Nafarroako Gobernuak eta, oposizioaren jarrera pasiboaren ondorioz, oposizioak ere sexismoa eta sexu bereizketa sustatzen dute.

Kontutan hartu behar da politika sozial ororen oinarria aurrekontuak direla. Beraz, genero ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontuak funtsezkoak dira.

- **Borondate eta konpromiso politikoa:** Aurrekontuen prozesu osoan eta atal guztietan genero ikuspegia txertatzeko konpromisoa lortu behar da instituzioen aldetik. Halaber, emakumeentzat zuzendutako programak eta jarduerak ezagutu, informazioa jaso eta horren eraginkortasuna baloratzea premiazkoa da. Baita sexuen araberako datuak jaso eta aztertzea ere. Azkenik, helburu ekonomikoak eta konpromiso sozialak parekatu behar dira.
- **Kontzientziazioa:** kontzientziazio lana egitea ezinbestekoa da.
- **Parte hartzea:** Aurrekontuen proposamenetan emakumeen beharrak, iritzia eta ikuspegia aintzat hartu behar da. Oro har, aurrekontuen zein erabakiak hartzeko prozesuan jendartearen parte hartzea bermatu behar da. Honetarako, behar diren bitartekoak jarri.
- **Ekarlana:** eragile sozial, sindikal eta herri mugimenduaren arteko elkarlana premiazkoa da. Politika sozialaren alde gaudenon indarren arteko aliantza sustatu behar da.
- **Bitartekoak:** aipaturiko irizpide guztiak bermatzeko beharrezko mekanismoak ezarri behar dira.

3. 0 URTETIK AURRERAKO HEZKUNTZA INTEGRALA.

- Parekidetasunean oinarritua eta beraz, hezkidetzalea.
- 0-3 urte bitarteko tarteari izaera hezitzailea eta ez soilik asistentziala aitortzea.
- Ez kontsumista. Epe motzeko asetzean eta indibidualismoan baino, elkartasunean eta errotze sozialean oinarrituko dena.

4. OSASUNGINTZA.

- Osasungintza ez da soilik gaixotasunaren tratamendura mugatu behar, baizik eta osasungintza integralaren kontzeptuan oinarritua behar du izan.
- Euskal Herrian indarrean dauden osasun sistemak ez dira emakumeon beharretara inondik inora egokitzen. Osasun zerbitzuen eskaintzak eredu eta gorputz maskulinoa dute ardatz eta oso urriak dira emakumeon osasunaren inguruan egindako ikerketa eta aurrerapenak. Beraz, emakumea ikerkuntza medikuen objektu eta subjektu izatea bermatu behar da. Horretarako, ikerkuntzaren izaera pribatua gainditu eta ikerkuntza medikua sare publikoaren esku egotea funtsezkoa da.
- Planifikazioa eta sexualitate orientaziorako zentroek gutxieneko prestazioak bermatu behar dituzte: gazteei zuzendutako informazioa, emakumeei begirako sexualitate hezkidetzeta integrala jendarte maila guztiak (adina, etnia...) aintzat hartuta, emakumeen beharretara erantzunen dion antisorgailuen inguruko informazioa eta tratamendua eta beharrezkoa denean abortuak libre eta dohainik garatzea.
- Gure gorputzaren gainean erabakitzeke eskubidea bermatuta egon dadin beharrezko mekanismoak ezartzea.

5. BAZTERKETA SOZIALA EKIDIN.

Diru sarrera minimo batzuk (oinarrizko errenta, soldata soziala...) izatearen berma egon behar du bazterketa soziala ekiditeko.

6. ELKARBIZITZA UNITATE EREDU EZBERDIN GUZTIEK AUKERA BERDINAK IZATEA.

Hala nola jabetza transmisiorako, gizarte laguntzak jasotzeko...eta abarrerako eskubidea pertsona ororentzat, elkarbizitza unitate eredu kontutan hartu beharrik izan gabe (ezkondu beharrik izan gabe adibidez...).

7. ERREKURTSO ETA LAGUNTZA SOZIALEN INGURUKO INFORMAZIOA, BALORAZIOA, ORIENTAZIOA ETA BITARTEKOEN BERRI IZATEA (ama hizkuntzan eta ezintasunen bat baldin badago egokitua).

Jendarteak, hasteko eskura dituen errekurtsu eta laguntzen inguruko informazio izateko eskubidea behar du izan. Gestioan azkartasunak ere garrantzia hartzen duelarik.

8. ARRISKU SOZIO-EKONOMIKOAN DAUDEN KOLEKTIBOAK.

Kolektibo ezberdinek, bakarrik dauden eta zama familiar dituzten emakumeak, etorkinak, etxerik gabekoak, babesik ez duten adin txikikoak, justiziarekin arazoak izan dituzten pertsonak, ezintasun fisiko, psikiko edo sozialak dituzten pertsonak...etab luze bat, integratze sozio-ekonomikorako zailtasun handiagoak dituzte, eta beraz, ondorengoa martxan jarriko duten mekanismoak izateko eskubidea dute:

- Eskuartze pertsonal edo familiar aurre babeslea izateko eskubidea, heziketa ikuspegi sozialetik landuko duena eta errehabilitazio izaera izango dena.
- Ahultasun egoeran edo prozesuan, diskriminazio egoeran edo eta bazterketa egoera edo prozesua pairatzen ari direnen egoera konpontze aldera, hauen prebentziorako, arintzeko edo zuzentzeko eta hauek aintzat hartzeko gaitasunen eta euskarrien garapena.
- Adin-txikikoengan eta babesgabeko kolektiboengan babesgabetasun egoerarik eman ez dadin behar beste babes eta errekurtsu izatea.
- Larritasun eta ezohiko egoeretan laguntza eskubidea: harrera etxeak; etxerik gabe aurkitzen den ororentzat, ohiko etxea arrazoi ezberdinengatik utzi behar duten emakumeentzat, babesgabeko egoeran aurkitzen diren adin-txikikoentzat...etab.

9. PERTSONEN ZAINKETA.

- Emakumeari zaintzailea ez izateko eskubidea aitortu behar zaio. Halaber, emakume bakoitzak zaindua izateko eskubidea du.

- Menpekotasun egoeran aurkitzen diren pertsonen inguruko diagnosi integrala burutzea. Honen arabera, neurriak ezarri:
- Menpekotasun egoeran aurkitzen diren pertsonen beharrei erantzun ahal izateko behar besteko bitarteko pertsonal, tekniko eta ekonomiko bermatu behar dira, honez gain, zerbitzu egoki bat osatzea ere behar beharrezkoa delarik.
- Menpekotasun egoeran aurkitzen den pertsonak etxean jarraitu ahal dezan edo jarrai dezan erraz dezaketen laguntza teknikoak.
- Etxe atentzioa eta etxe jangela zerbitzua.
- Lasaialdirako edo eta atsedenaldirako errekurtsioak.
- Eguneko zentroak eta zentro okupazionalak.
- Egoitza laguntzak (zaindutako pisuak, etxebizitza komunitarioak, geriatrikoak...)
- Menpekotasun egoeran aurkitzen diren pertsonen oinarrizko zaintza familiarren baten esku geratzen denean, zaintzaile hauek sostengatu egin behar dira, errekonozimendu ekonomiko bat izanik eta gizarte-segurantzian kotizatuz.

10. GARAPEN KOMUNITARIOA.

- Elkartasunezko eta giro egokiko ingurune batetan bizitzeko eskubidea dugu. Horretarako, ekintza komunitarioak, partehartzerako eta elkartasunerako beharrezkoak diren bitartekoak eskaini behar ditu, bai familien eskutik, eta baita auzo mailako talde edo komunitateen eskutik ere.
- Autogestionaturiko lokalak.
- Garraio publikoa (behar besteko eta egokitutako garraio publikoaren sustatzea).
- Kontsumo egokirako eskubidea. Pertsonen beharren arabera kontsumo eredu bat behar dugu behar ekonomikoen arabera kontsumo sistema bat baino.
- Jangela sozialak.
- Herri eta auzoei bizitza soziala emango dien ekintza hezigarri eta kulturalak.
- Laguntza sozial informalaren sustapena, sentsibilizazio soziala, auzo-antolaketa, bitartekaritza komunitarioa...
- Bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean jendartearen partehartzerako ereduak edo formulak.

Lehen aipatu bezala, ez da aldarrikapen zerrenda itxia ezta estatikoa ere. Gure asmoa lan hau ahalik eta gehien kontrastatzea, aberastea eta sozializatzea da.

Duintasunerako Premisak lan tresna bilakatzea nahi dugu, tresna praktikoa eta integrala.

Emakumeok pairatzen ditugun errealitate ezberdinak identifikatu eta horren aurrean

Duintasunerako Premisak baliatu egoerari aurre egiteko. Horretarako, gatazka soziala sortzea ezinbestekoa da, egiturazko arazoak ikustaraziz. Ezin gara etsitu ezta prekarizazio egoera hau onartu ere.

Prekarietateari aurre eginez!!

Emakume guztion tresna izatea helburu dugu. Emakumeon arteko aliantza sustatuz eta borroka mekanismo berriak sortuz.

Halaber, borroka ideologikorako baliabide bat izatea asmoa dugu. Kontzientziazio lana garatuz, norbanakoena guztiona bilakatuz eta zapalkuntzak eragiten duen arazo soziala ikustaraziz.

Prekarietatearen kontrako borroka, egiturazko borroka politikoa da. Euskal Herriko zatiketa administratiboa dela medio eta herriaren ukazioa dela eta areagotzen dena.

Euskal Herrirako eta euskal emakumeontzat errealitate berri bat nahi dugu. Emakumeon askatasuna bermatuko den errealitate berri bat, non dagozkigun eskubideak aitortuak izan eta garatzeko mekanismoak ezarri daitezzen.

Errealitate hau zor zaigu eta borrokan jarraituko dugu lortu arte.

Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2008ko Otsaila.